

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Proiektua aurrera eramateko, kapitala lortzeko laguntza izan dugu. Besteak beste:

- 1. Herritarrak:** Crowdfunding metodoaren arabera, herriko herritarren aportazioak lortu ditugu. Aportazioen arabera, herritarrek, hainbat beherapen motak izango dituzte enpresaren zerbitzuetan.
- 2. Tabernariak eta dendariak:** Gure proiektua onuragarria izango denez herriko denda eta tabernentzat, haiekin adostu ondoren, aportazioak jasoko ditugu.
- 3. Sestaoko udala:** Sestaoko udalaren laguntzarekin aurrera aterako dugu gure proiektuak, erreztasunak eskainiko dizkigute eta ahal izanez gero diru aportazioak egingo dituzte.
- 4. Gallartako industria museoa:** Gallartako museoarekin harremanetan jarri gara eta haien laguntza eskaini digute. Aholkuak emango dizkigute eta aportazio materialak egingo dituzte garaiko industrializazioa gure museoan ahalik eta hoberen islatzeko.

Segurtasuna izateko eta arriskuak eragozteko, museoan segurtasuna edukiko dugu eta noski tirolinan eta uretako kiroletan behar diren segurtasun guztiak edukiko ditugu. Horretako babesak eskatuko dizkiogu Udalari eta profesionalak kontratatuko ditugu.

Taldekide bakoitzak duen **funtsezko baliabideak:**

- Itsasnek: webguneak eta sare sozialak sortzeko gaitasuna.
- Gorkak: negozioetarako abilezia.
- Mirenek: publizitaterako gaitasuna.
- Idoiak: diseinu pertsonalizatuak sortzeko gaitasuna.
- Iratxek: harremanetarako abilezia.